

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

Ezpeleta jauregian zazpi ikastaro eskainiko ditu aurten Iruñean UEUK

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailarekin elkarlanean, hiru ikastaro doan izango dira

Guztira, 35 ikastaro, jardunaldi eta tailer antolatu dira iazko lelo berarekin, 'Elkar Ekin'

DN Iruñea

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) udako ikastaroek egoitza berria estreinatuko dute aurten Iruñean: Ezpeleta jauregia. "Pozik gaude UEUK azken urte hauetan Nafarroan izaten ari den lanarekin", azaldu zuen Nafarroako arduradun Edurne Koch-ek. "Alde batetik, ikasle zein profesionalentzat UEU gero eta erakunde erreferentzialagoa da eta bestetik, nafar erakundeekin lantzen ari garen bidea emankorra izaten ari da", esan zuen.

Zazpi ikastaro izango dira aurten Iruñean, ekainaren azken astean. "Azken bi urtetako erabakiari jarraituz, San Ferminen aurretik eskainiko ditugu", azaldu zuen Koch-ek. "Gaien aldetik, beti bezala, aniztasuna nagusi".

Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-ekin elkarlanean antolatuta, *Bertsolaritza genero ikuspegitik* ikastaroa antolatu dute (ekainak 25, 26), Miren Artetxe, bertsolaria eta Euskal Filologian lizentziatua, eta Ane Labaka, Euskal Galetan graduatu eta bertsolariaren eskutik.

Gorka Menendez Etnobotanikan doktoreak *Zientzia ala superstitioa? Sendabelarren afera azterketa etnobotanikoaren ikuspegitik* (ekainaren 25etik 27ra) ikastaroa emango du.

Jabetza berdearen titular nor?



Ezkerretik eskumara, Kepa Sarasola, Irati Iciar eta Edurne Koch, Iruñeko Katakarak liburudendan.

CALLEJA

ikastaroa, berriz (ekainak 26), landa-eremuen titulartasunari buruz hausnartuko du. Hilaren 26 eta 27an, berriz, *Ekonomia sozial eta solidarioko erakunde kudeaketa: printzipioetatik errealitate* ikastaroa antolatu du Josu Aztiria, Elhuyar eta UEUKo kideak.

Iruñeko ikastaroetatik hiru Nafarroako Gobernuo Hezkuntza departamendurekin elkarlanean antolatu ditu UEUK, eta, beraz, doan eskainiko dituzte. Hauek dira: Ipuin parekideak sortzen (ekainak 25,26); Errealitatea kontatzeko manerak (ekainak 25,26) eta Lankidetzan oinarritutako idazketa hizkuntzak barnertatzeko (ekainak 25-27).

Guztira, Iruñea, Eibar, Baiona, Gasteiz, Usurbil eta Donostiako ekitaldiak kontutan hartuz, 35

izango dira UEUKo ikastaroen jarduerak. Ehundik gora ikastaro proposamen jaso dituzte. "Aukeraketa egitea zaila izan da, jasotako ideiak oso onak izan direlako", azaldu zuen aurkezpenean UEUKo Udako Ikastaroen arduradun Iraci Iciar-ek.

Aurten sei formatu desberdineko ikastaroak daude: ikastaro espezializatuak, dibulgazioko ikastaroak, garapen pertsonaleko ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak eta tailerrak.

Aurtengo udako ikastaroak Gasteizen abiatuko dira, Euskara Batuari helduaroa jardunaldiarekin. Aurten, euskara batua abiatu zeneko 50. urteurrena da.

Aurtengo ikastaroek iazko leloa errepikatuko dute, Elkar Ekin. "UEU ez litzateke posible izango elkarlanik gabe", azaldu zuen UEUKo zuzendari Kepa Sa-

rasolak. "Gure izaeran dago elkargune izatea, eta udako ikastaroak ere hori islatzen dute. Ikastaro hauek auzolanean antolatzen ditugu pertsona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik egiten diegu proiektu berriei, jakintza berriei. Eta horregatik, beste urte batez, bere curriculum profesionala zein pertsonala aberastu nahi duen orok izango du tokia gure udako ikastaroetan".

Laguntza garrantzitsuak daude aurten ikastaroetan parte hartzeko. Ikasle, langabetu eta jubilatuen matrikuletan beherapenak eskaintzen ditu UEUK, eta hainbat udalek diru laguntzak emango dituzte beraien herritarrentzat, beste batzuen artean.

Izena emateko epea jada irekita dago. Informazio eta matrikula: www.ueu.es

Berribeitiko zendeako euskararen jaiak, 10 urte

DN Iruñea

Berribeitiko zendeako Euskararen Jaiak aurten hamargarren urteurrena ospatuko du, *10 herri, 10 urte!* lelopean. Hamar herri daude Berribeitiko Zendea eta, urtez urte, Euskararen Eguna zendeako herri guztietatik pasatzen joan da. Aurten zendeako azken herria dute, Oteitza. Aurretiko astean egitaraua oparoa izanen dugu: erakusketa, hitzaldia, musika emanaldia, haurren minidiskoteka... zendeako toki ezberdinetan. Ekainaren 2an, berriz, Euskararen Eguna Oteitzan. Hor ohiko egitaraua izanen dugu, goizeko 11:30etik gaueko ordu txikieta.

Eskolarteko bertsolari txapelketaren finala Saran

DN Iruñea

Ekainaren 9an izango da Euskal Herriko Eskolarteko bat-bateko Bertsolari Txapelketako finala Saran. Aurtengoa, gainera, XXX. edizioa izango da. Hala, Gipuzkoako, Nafarroako, Bizkaiko, Arabako eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako txapelketak amaituta, lurraldeetako parte-hartzaile eta zaleak Euskal Herriko Eskolarteko bat-bateko Txapelketan elkartuko dira festa giroan. Izan ere, oholtza gainean finala jokatuko den arren, ikasturtearen amaiera ere ospatuko dute hurbildutako gazteek.

Agenda

Maiatzak 30, asteazkena

Haur programazioa euskaraz
ANTZERKIA
Panta Rhei. "Astokillo Circus"
Iruñeko Zitudadela. 18:30. Sarrera libre

Maiatzak 31, osteguna

IPUIN KONTALARIA
Liburu sendalaria
Tiferencia. Ele bitako jardura
3-10 urte, Milagrosako Liburutegi Publikoa. 18:00. Sarrera libre

Kantu eta Hitz 2018
KONTZERTUA
Jabier Muguruza. "Leiho bat zabalik"
Erraldien Txokoa. 20:30. Sarrera libre aurretik gonbidapena hartuta

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es



EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA OSATUZ

Euskaltzaindiak Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren bederatzigarren liburukia kaleratu du. 262 mapaz osatuta, besteak beste, giza gorputzarekin, janzerarekin, norberaren apainketarekin, sexualitatearekin eta haurtzaroarekin zerikusia duen lexikoa landu da eta zernahi esparrutako hitzak eta esamoldeak jaso dira.